



Mariren

etxebizitza

Aldacrak:
Ahozkoa: Máin



43° 11' 9"

2° 35' 29"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Gangutia (**Ikus Gangutia**) baserriaren beheko aldean kokaturiko baserri honen gaineko lehen aipamenak Bizkaiko su-erroldean aurkitzen ditugu, XVIII. mendeko lehen urteetan: *Maríen* (1704). Mende horretan zein XIX. mendean, forma hori mantenduko da batez ere; *Maríen* (1808, BAH, A174/10) eta *Maríen* (1864, DJE, 1/ 98. or.) aipuak ditugu horren adibide. XX. mendean, aldiz, aldaera desberdinak ditugu: *Maríngua* (1905) BUA, 40) eta *Marín* (1910, BUA, RU), eta 1967an, berriz ere, *Maríen* (BUA, CE). Andikoatarren artean, *Máin* izan da baserria identifikatzeko era.

Baserri handia da, are gehiago eskuma aldean erantsita daukan gorputza gehitzen badiogu. Solairu bi eta ganbaradun etxea da, harlangaitzaz jasoa, nahiz eta kantalak eta leihoen ertzak harlanduzkoak diren. Fatxada nagusiaren elementurik bereziena atarteko sarrera arkua da, etxearen ardatzean. Baoei begiratzen badiegu, esango genuke arkuaren gaineko biak eta ezker-raldekoak ordena jakin baten arabera zabaldu zirela eta eskuma aldekoak, oster, beste planteamendu bati erantzuten diotela. Ganbaran hormigoizko balkoia dauka, egurrezko karelduna. Isuri biko teilatua dauka eta zeharo berrituta dago, XVIII. mende amaiera edo XIX. mende hasierakotzat hartu badaiteke ere.

toponimia

Oso izen eder eta berezia da hau. Gure irudiko "Mariren etxe" esan nahi du eta berezia da holakoetan, ia guzti-guztietan artikulua ageri delako (Abadena, Jakobena, Otxoena...) eta honetan berriz, badirudi Mari eta -en direla osagaiak. Bizkaian, horrelako oso gutxi dago eta dagoenean noren kasu normalarekin ageri da, Atxoaren, esaterako Bermeen. Izatez -ena atzizkia noren kasutik sortu zen, baina XVIII. menderako atzizki independentea zen "etxea" esangurarekin eta horregatik Mariren esan beharrean Maríen zen.